

IX. IPUIN LEHIAKETA



FRUIZKO
UDALA



GAMIZ-FIKAKO
UDALA



MEÑAKAKO
UDALA



ARRIETAKO
UDALA

Aurkibidea

• Agurra	3
• Parte hartzaileak eta epaimahaikideak	4
I. Kategoria (5-6 urtekoena):	5
II. Kategoria (7-8 urtekoena):	9
III. Kategoria (9-12 urtekoena):	13
IV. Kategoria (13-17 urtekoena):	20
V. Kategoria (18 urtetik aurrera):	25

AGURRA

Liburuxa honek aurkezpen handirik behar ez daualakoan gagoz; izan be, 3. urtea da Ipuin Lehiaketako lehenengo hiru ipuin saridunakaz liburuxka argitaratzen dala.

Aurkezpenak, bada, albo batera itxi eta konbit egiten deusuegu:

- Batetik, herritarrek egindako lanak irakurri daizuezan -ziur gagoz irakurriz batera gozatu eta ezusteko benetan politak hartuko dozuezala-.
- Eta bestetik, orain arteko parte hartzaile guztiei zein inoiz parte hartu bakoei, 2007ko abenduko ipuin lehiaketan parte hartzera.

Beste barik, Liburuxka honetan bildutakoak gustukoak izango dozuezalakoan, datorren ipuin lehiaketa arte.



Euzume Torrealde Arrietako Udaleko alkatea



Jose Luis Elgezabal Orbe Fruizko Udaleko alkatea



Eduardo Llona Llona Gamiz-Fikako Udaleko alkatea



Angel Torre Hormaetxe Meñakako Udaleko alkatea

IX. IPUIN LEHIAKETA

PARTE HARTZAILEAK

ALAYO ZARATE MATXALEN
ANTOLINEZ MENDEZ MAITE
ARETXAGA MINOVA GALDER
AROSTEGI URIAGEREKA ELIZABET
AZKETA RIKE AITOR

ENZUNZA MALLONA AINHOA
ENZUNZA MALLONA IRATI
ENZUNZA MALLONA OLATZ
ELGEZABAL MONASTERIO GOIAZ
ELGEZABAL MONASTERIO IBAI

GOITISOLO URIARTE JONE
GOROSTIAGA URKIZU AINHOA

LEGARRETA LEGARRETA ASIER
LOPEZ APRAIZ LOREA

MALLONA MADARIAGA NEREA
MORA PEREZ ARITZ

OLAZAR BARONA IAN
OLAZAR BARONA LEIRE
OTAZUA ELGEZABAL AINHOA

REICHEMBERGER CABALLERO IRATI
RIKE GARAIZAR LARRAITZ
RIKE GARAIZAR ORZURI

EPAIMAHAIKIDEAK

AZKETA RIKE LEIRE
BARAIAZARRA TXERTUDI PILARE
MURUAGA GEZURAGA IKER
OTAZUA ETXEBARRIA ITSASO


I. Kategoria
(5-6 urte bitartekoak):
Marrazkiak

Egilea: Irati Reichemberger Caballero

Adina: 6 urte

Herria: Arrieta

MAITEMINTZEKO EGUNA



Egilea: Matxalen Alayo Zarate

Adina: 6 urte

Herria: Meñaka

GABONAK



Egilea: Ainhoa Gorostiaga Urkizu

Adina: 6 urte

Herria: Gamiz-Fika

JIRAFIA OLENTZERORI ITXAROTEN GAUEAN



II. Kategoria
(7-8 urte bitartekoak):

Egilea: Olatz Enzunza Mallona

Adina: 8 urte

Herria: Fruiz

MARITXU TEILATUKO

Bazen behin 8 urteko neskatxu bat, Nekane deitzen zen, argala eta altua zen.

Egun batean hagina jausi zitzaion, teilatura bota zuen Maritxuk hartzeko, eta kanta be egin zuen: "Maritxu teilatuko gona gorridune hartu hagin zaharra eta ekarri barrie".

Hurrengo goizean esnatu zenean opari bat ikusi zuen, zabaldu zuen eta esan zuen: ZE ONDO!!! Soka salto bat, ze pozik ipini zen.

Hurrengo astean beste hagin bat jausi zitzaion. Nekane jakin nahi zuen zer egiten zuen Maritxuk haginarekin, orduan bota zuen hagina teilatura eta bera be ezkutatu egin zen teilatuan.

Gauean Maritxu isil-isilik etorri zen eta Nekane atzetik jarraitu zion.



Maritxu basoan urrun-urrunera joan zen eta etxe txiki-txiki batera sartu zen.

Nekane leihotik begiratu zuen kontuz-kontuz eta... Maritxu haginekin koilarrak, eraztunak, pulserak... egiten egin zen.

Orduan Nekane esan zion: "Norentzat zaude pulse-
rak eta egiten?"

"Basoko animalientzat. Eta egin eta gero pintatu egiten ditut eta txoriei, tximeletei, urtxintxei... oparitzen dizkiet".

Orduan Nekane poz-pezik joan zen etxera eta bere lagunei esan zien haginak teilatura botatzeko Maritxu teilatukori.

Zuek be haginak teilatura bota, Maritxu pozik jarriko da eta.

Egilea: Ian Olazar Barona

Adina: 7 urte

Herria: Gamiz-Fika

ZALDUN AUSARTA

Bazen behin Erdi Aroko erresuma txiki batean errege zahar bat. Ez zeukan seme-ala-barik eta ez zekien nor izendatu beraren ordezko.

Nobleen artean zaldun ausartenak eta zintzoenak mereziko duela erresuma pentsatu zuen erregeak. Zaldun hau aurkitzeko berria azkar zabaldu zen erresuman zehar. Zaldun bi baino ez ziren aurkeztu erregearen aurrera, beraren ordezko izateko nahian. Zaldun bat guztiz beltzez jantzita zegoen eta Nigro zuen izena. Bestea, ostera, zuriz jantzita zegoen eta Zuro zuen izena.

Erregeak aproba bat jarri zien. "Baso miragarrian ostonduta dauden bi ezpatak eka-
rri behar dizkidazue. Aproba hau gainditzen duenari emango diot nire erresuma" esan zien erregeak.



Nigro heldu zen lehenengo baso miragarrira eta hantxe ipotx bat aurkitu zuen. "Aizu, ipotx memelo hori, esan non dauden bi ezpatak" esan zion Nigrok era txarrean.

"Bide horren amaieran daude" esan zion ipotxak hase-
rretuta.

Hurrengo Zuro zalduna heldu zen ipotxarengana eta haxe esan zion: "Egun on ipotx jauna, esango didazu, mesedez, non daude bi ezpatak?".

"Ez dakit baina igelak jakingo du" esan zuen ipotxak irribarrez.

Bien bitartean Nigrok bidearen bukaeran lastozko etxe bat aurkitu zuen eta inork ez zionez atea ireki, etxea erre egin zuen.

Zuro zalduna errekarra ailegatu zen: "Igel jauna, non zaude? Ez ikaratu, mesedez". Halako batean, igela agertu zen astiro-astiro zaldunaren kolorea ondo ikusteko.

"Zer nahi duzu?" galdetu zion igelak ".

"Egun on igel jauna, esango didazu, mesedez, zer egin behar dudan ezpatak aurkitzeko?".

"Neuk ditut ezpatak baina zure zaldi zuria erregalatu behar didazu " esan zion igelak.

Zurok haxe erantzun zion: "Barkatu igel jauna baina ezin dizut zaldia erregalatu. Neure lagun handia da eta lagunak ez dira saltzen ezta erosten ".

Erantzuna oso zentzuzkoa zenez, beste barik ezpatak erregalatu egin zizkion igelak.

Nigro, zaldun beltza, galduta zebilen basoan eta inork ez zion esan nahi zelan irten.

Zuro pozaren pozez itzuli zen gaztelura eta erregeak beraren ordezko izendatu zuen.

Egilea: Maite Antolinez Mendez

Adina: 8 urte

Herria: Arrieta

OLENTZEROREN LAGUNTZAILE BERRIAK

Bazen behin Sollube izeneko mendi baten Olentzero deitutako gizon langile bat, eta umeentzako opariak egiten zituen galtzagorrien laguntzaz.



Egun batean galtzagorri batek esan zuen:

- Zergatik egin behar dugu lan Olentzerorentzat berak ez badigu ezer trukean ematen?
- Bai hori da! Esan zuten beste galtzagorriek. Orduan denak basorantz abiatu ziren.

Olentzero ohartu zenean oso triste jarri zen eta bera ere basora joan zen. Iritsi zenean galtzagorriei galdetu zien:

- Zergatik egin duzue ihes?

Galtzagorriek erantzun zioten:

- Ba, ez dugulako zuretzat lan egin nahi ez diguzulako trukean ezer ematen.

- Beno, gutxienez lagunduko didazue niri laguntzeko prest dagoen norbait aurkitzen, ezta?

- Beno, ongi da, suspiratu zuten galtzagorriek.

Hurrengo egunean bidai luze bat egin zuten Afrikarantz.

Herri txiki batera iritsi ziren. Olentzerok bertako jendearekin tratatu bat egin zuen: - Begira, niri laguntzen badidazue umeentzako jostailuak egiten, nik dirua, janaria, etxeak eta jostailuak emango dizkizuet.

Olentzeroren proposamena ongi iruditu zitzaien afrikarrei. Eta hortik aurrera oso pozik bizi izan ziren.



III. Kategoria
(9-12 urte bitartekoak):

Egilea: Irati Enzunza Mallona

Adina: 12 urte

Herria: Fruiz

HODEIETAKO MIREN

Gipuzkoako herri txiki eta polit batean, bada Eneritz deituriko neska lirain bat, 12 urte ditu eta bere familiarekin bizi da herri polit horretan. Eneritz ez da lar altua, baina bajua ere ez. Ile horia eta luzea du eta begi marroiak.

Eneritzek bi neba eta ahizpa bat ditu eta hirurak dira bera baino zaharragoak. Bere neba-arrebak hirian daudenez ikasten, bera da bere familiako artzaina, horregatik, Eneritz, egunero-egunero mendira joaten da 17 ardi zuri eta 5 ardi beltzekin. Goizero 06:00etan jaiki eta ardiak jetzi eta gosalduek ondoren, mendira abiatzen da.

Egun batean, egunero bezala egin zituen goizeko lan guztiak eta ardiak hartu eta mendira heldu zen. Gailurrera heltzean, ardiak belarretan utzi eta hamaietakoa jaten eseri zen lurrean, harri handi batean lepoa jarrita. Bat-batean, zeruan hodei oso txiki bat ikusi zuen eta gainean norbait zegoela iruditu zitzaion beste batekin hizketan, ez zien kasu handiegirik egin, lehenago bere gauzetan pentsatzen ibili zenez, bere imaginazioa zela uste zuelako. Arratsaldean, berriro, ardi guztiak etxera joan zen.

Hurrengo goizean, bere lagunik onena, Maite, falta zen herrian eta berak pentsatu zuen oportetan joango zela, baina, oso arraroa zen Maitek ez esatea ezer Eneritzi, dena kontatzen baitzion.

Mendira heldu zenean, berriro ikusi zituen aurreko eguneko lagun biak eta Maite hodei txiki misteriotso horretan. Orduan, aurreko egunean ikusitakoa egia zela ohartu zen, eta korrikan joan zen herrira ardiekin, gurasoei dena kontatzen.

Gurasoek hasieran ez zioten esandakoa sinestu, eta egia zela frogatzeko, Eneritz gaixoak beldurtuta bera ere hodeietara eramango zutela pentsatzen, aita eta ama, biak eraman zituen mendira. Hara heldu eta gurasoak harrিতuta geratu ziren hura ikustean eta ez zekiten zer egin.

Gauean, denak etxean zeuden zer egin pentsatzen eta Eneritzi hauxe bururatu zitzaion:

- Badakit zer egin! Amaren jantzi moderno eta luzeetariko bat hartu eta osaba Markelen hegazkintxotik saltatuko dut hodei horren gainera, eta bertan dauden neskak eta Maite hartuko ditut, eta osabarekin itzuliko gara bere hegazkintxoan.

- Oso ideia ona alabatxo –esan zion aitak.

- Bai, zoragarria da! –jarraitu zuen amak.

Joan ziren orduan hurrengo egunean osaba Markel eta Eneritz hegazkinean. Eneritzek hegazkintetik salto egin zuen han zeuden 3 neskak hartzeko, baina Maitek, bere lagu-

nak, esan zion itxaroteko pixka bat, bera eta beste neska ez eramateko herrira, hodeiak gobernatzan dituen nagusiarekin hizketan zeudelako. Maitek hauxe esan zion:

- Kaixo Eneritz. Hau Miren da. Hodeietako erregina, bakarrik dago, gero eta gehiago kostatzen zaio hodeiak zaintzea, ez dauka indar askorik eta ezin ditu hodeiak leku batetik bestera eramanean, laguntza behar du eta Itziar eta ni ekarri gaitu hona, norbait behar duelako orain lan hori egiteko eta gu prest gaude. Zeuk ere etorri nahi duzu? –Eneritz pentsakor geratu zen eta esan zuen:


- Noski. Nola ez ba? –Maite, Miren eta Itziar oso pozik jarri ziren hori entzutean, eta Eneritz ere bai, noski. Orduan Eneritz osaba ikusi zuten hegazkinean ea zeri itxaroten zeuden galdezka. Eneritzek pixka bat itxaroteko esan zion osaba Markeli, eta Mireni esan zion bera prest zegoela hurrengo egunean bertan lanean hasteko. Hori entzutean, neska biek ere baietz esan zuten.

Orduan, Eneritz, Maite eta Itziar, Markelen hegazkinean sartu eta herrira joan ziren. Herrian berria zabaldu zen eta 3 nesken gurasoei ondo iruditu zitzaion lan hori. Hurrengo goizean, goizeko 9:00etan herriko plazan elkartu ziren hirurak. Osaba Markel hodeietara eramanean zituen eta hasi ziren lanean.

Ordutik, gure laguntxoak zeruan bizi dira Mirenekin, erregina zoriontsu dago laguntzaile ezin hobek aurkitu dituelako, asko laguntzen die eta arazoren bat dagoenean Mirenek esaten die nola konpondu.

Lan asko egin behar dute zeruan, hodeiak mugitu leku batetik bestera, hodei beltzak sortu, haize zakarra, hodei zuriak jarri zeruan, euria sortu, elurra, txingorra... Eneritzek, hodeietatik ikusten ditu bere ardiak eta ahal duen guztietan joaten da lurrera bere senideak bisitatzerara eta arditxoak ere bai.

Zuek ere begiratu ondo hodeiei, eta ea ikusten dituzuen Eneritz eta bere lagunak lanean.



Egilea: Ainhoa Enzunza Mallona

Adina: 10 urte

Herria: Fruiz

GILTZ MAGIKOA

Bazen behin Lorea deitzen zen neska bat, 12 urte zituen eta herri txikitxo batean bizi zen mendiz inguratuta.

Egun batean, basotik paseatzen ari zela, zeozer arraroa ikusi zuen lurrean botata, hara hurbildu zen eta giltz bat aurkitu zuen, dizdira handia botatzen zuen.

Ez zekien zer egin baina giltza hartu eta etxera joan zen. Etxera heldu zenean amari esan zion:

- Begira ama! Basoan paseatzen ari nintzela giltz hau aurkitu dut. Zer egingo dut?
- Ba ez dakit, bihar goizean pentsatuko dugu. Orain goazen ohera.

Gauean, ahots arraro batek izartu zuen Lorea, norbait bere gelan zegoen hizketan:

- Eraman nazazu kaixara! Eraman nazazu kaixara!

Nerea oso beldurtuta bere amarengana joan zen, eta amak giltzaren ahotsa entzuterakoan, giltza sorginduta dagoela eta aurkitu duen tokira eramateko esan zion, ez duela giltza etxean ikusi nahi.


Berrero bere logelara joan zenean Loreak galdetu zion giltzari:

- Zergatik hitz egiten duzu? Non dago zure kaixa? Zer egiten zenuen basoan?
- Lagundu basora eta kontaktuko dizut.

Giltzak argi itzela ematen zuen eta bidea erakusten zion Loreari.

Orain dela 20 urte gutxi gora-behera sorgin batek kaixatik bota ninduen, eta hor egon naiz basoan botata, laguntza eske, baina inor ez zen konturatzen, zuk ikusi ninduzun arte. Loreak, basorik baso lagundu zion giltzari bere kaixa aurkitzen, eta azkenean, zuhaitz handi baten ondoan aurkitu zuten, hostoz beterik eta lurraz zikinduta.

- Zabaldu astiro-astiro kaixa ea nire laguntxoak oraindik hor dauden.



Loreak astiro-astiro zabaldu zuen eta bat-batean 10 ipotx txiki lotan aurkitu zituen.

Giltza, Lorearen eskuan poza-
ren pozez saltoka hasi zen
eta bere zaratarekin ipotxak
esnatu zituen.

Ipotxak saltoka eta dantzan
hasi ziren, baina giltzak esan
ziren haiek bizi ziren kobazu-
lora joan behar dutela.

Saltoka-saltoka antzinako
kobazuloraino heldu ziren,
eta Lorea ere haiekin joan zen.

Kobazulora heldu zirenean, ipotx guztiak beldurturik zeuden eta ez ziren ausartzen barrura sartzen, sorgina egongo zela pentsatzen zutelako, baina orduan, kobazuloaren barrutik zarata bat entzun zen, AUUUUUUU ! AUUUUUU ! Eta otso handi bat agertu zen.

Ipotxek uste zuten sorgina zela, eta korrika hasi ziren. Orduan giltzak galdetu zion otsoari:

- Zer egiten duzu gure etxean?

- Zuen zain nengoan, orain dela urte batzuk hona etorri eta sorgin bat aurkitu nuen zuen etxean, borrokan ibili ginen, baina azkenean lortu nuen hemendik kanpo bidaltzea, eta ordutik nago zuen zain.

- Hau bai poza, berriro etxean! Basoa zaintzeko prest gaude!


- Bai, basoko animalia eta landareak ere zuen zain daude!

Orduan giltzak eta ipotxek esan ziren otsoari ea haiekin bizitzen geratu nahi zuten.

Otsoak poz-pozik baietz esan zien.

Ipotxak eta giltzak orain basoan jarraitzen dute bizitzen eta noizbehinka Lorea ere bisitatzerara joaten da.

Zuek ere zaindu basoa, han daude gure laguntxoak eta!



Egilea: Leire Olazar

Adina: 9 urte

Herria: Gamiz-Fika

ALTXOR TXIKI HANDIA

Bazen behin Irati izena zuen neskatxo bat. Irati bere gurasoekin bizi zen Otxandioko mendi batean. Baserri zahar-zahar batean bizi zen eta ardiak zituzten neguan gazta eta esnearekin elikatzeke.

Egun batean aitak esan zion: " Irati, atera itzazu ardiak artegitik eta eramán itzazu mendira belarra jan dezaten. Ez ahaztu, arratsaldeko zazpiak baino lehenago eta ilundu baino lehenago itzuli etxera ". " Bai aita ", erantzun zion Iratik eta Laski izena zuen txakurrarekin eta artaldearekin mendi puntara abiatu zen.

Eguna oso eguzkitsua eta polita zen eta Iratik botila bat ur eta otartekoa hartu zituen. Laskirentzako ere okela zati bat hartu zuen.

"Gaur Urgaziko leize-zuloaren albora eramango ditut ardiak belarra jan dezaten eta horrela gazta gozo-gozoa emango digute " pentsatu zuen Iratik.

Bien bitartean, aldapa gora joan ziren denak (neskatoa, txakurra eta ardiak). Gora heldu zirenean leize-zuloaren aurrean zuriz jantzita zegoen andere zoragarri bat ikusi zuten. Xinxa zen. Iratik bazuen Xinxaren entzuterik bere guraso eta auzokideen eseretatik. Xinxa oso ederra zen; ile horia eta luzea zuen eta aurpegia oso fin eta samurra.

Andereak, hitzik esan gabe, eskutik heldu zion Iratiri eta kobazuloaren barrura eramán zuen. Laski adausika hasi zen ez baitzuen ezer ulertzen baina bazekien beraren jabeari zerbait gertatzen ari zitzaiona. Azkenean, txakurra isildu egin zen eta ardiak jagoteari ekin zion.

Orduan, Xinxa andereak Iratiri hauxe san zion "Ez izan beldurrik, neskatxo. Ez dizut minik egingo ". Eta biak gero eta barrurago joan ziren leku miragarri batera heldu arte. Xinxak neskatoak nahi zuen guztia ematen zion, baina ez zion uzten leize-zulotik irteten. Horrela egunak eta egunak pasatu ziren.

Egun batean Xinxak ustekabez esan zion neskatoari: "Irati, orain irten zintezke kobazulotik nahi baduzu ". " Ez, ez dut irten nahi; oso ondo nago hemen ". Eta orduan Xinxak berriro esan zion irten egin behar zuela. Neskatoa kanporantz zihoala, andereak eskukada bat lur hartzeko esan zion. Iratik, Xinxaren agindua betez, hartu egin zuen eta kobazulotik irten zenean, lurra harribitxi dirdiratsu bihurtu zen. Neskatoak ezin izan zuen sinistu miraria. Gainera, irtenez batera, Laski txakurra berarengana joan zen korrika pozaren pozez. Txakurrak egunak eta egunak egin zituen kobazuloaren aurrean geldituta beraren jabea agertu arte. Hau poza!!!!

Iratik txistu egin eta ardi guztiak batu ondoren, baserrirantz joan ziren denak. Nes-

katoa pozaren pozez zegoen. Harribitxiak poltsikoan ondo gorde zituen etxera heldu arte.

Atea jo zuen eta gurasoek besarkada handi bat eman zioten. "Baina non egon zara hainbeste egunetan?; oso kezkatuta egon gara; ia-ia galdutzat eman zaitugu ". " Ama, egia esan arren ez zenidake sinistuko, baina begira ezazu zer ekarri dudan Urgaziko kobazulotik " esan zion Iratik amari.

Harribitxiak erakutsi ondoren, gurasoak itzelez poztu ziren eta altxor txiki horrekin baserria konpondu zuten erosoago bizitzeko. Eta handik aurrera askoz ere pozago bizi ziren ardiak zaintzen eta naturaz gozatzen.



IV. Kategoria
(13-17 urte bitartekoak):

Egilea: Ibai Elgezabal Monasterio

Adina: 13 urte

Herria: Gamiz-Fika

ARGONIA

Bazen behin lurralde oso urrun eta magiko bat hainbat izaki fantastikoz beteta. Oso arrisku handiko gunean zegoen, baina Argoniak izaki horietatik babesten duen ispilu magiko bat du, eta hain ispilu bereziak bere zaindaria du, bere izena Robin da.



Gau ilun batean Robinek amets arraroa izan zuen, bera lurrean zegoen eta bere aurrean dragoi beldurgarri bat, bat-batean esnatu egiten da. Gaueko hamabiak dira, Robinek garrasi bat entzuten du gaztelutik, hain zuzen ere ispiluaren gelatik. Orduan Robinek bere ezpata hartu eta badoa ispiluarengana. Ispiluaren gelan gizon bat dago lurrean konortetik gabe, ispilua falta da eta leihoa hautsita dago.

Biharamunean erregeak Robini deitzen dio eta serio-serio esaten dio:

- Robin, ispilu Argoia iluntasuneko erregeak lapurtu du eta hau berreskuratu behar duzu, hurrengo ilargi betearen aurretik bestela iluntasuneko izakiek Argonia suntsituko dute.

Berehala abiatu zen, han zihoan bere zaldi Medearen gainean. Bere zaldiari estimu handia dio txikia zenean eta inor ez zeukanean aurkitu baitzuen eta orduz gero biak dira lagun oso onak, edonora doaz elkarrekin.

Zaldi gainean pixka bat ibili ondoren baso ilunean sartzen da, baso ilunean sartu orduko zuhaitz artetik bi begi berdeko piztia beltz ikaragarri batek salto egin zuen. Gure heroia Robin bere zaldi gainera bota zuen. Piztia geroz eta hurbilago zegoen, tentsioa geroz eta altuagoa zen, Robinek ezpata atera zuen eta berehala hasi zen borroka. Ezpata piztiaren atzaparren kontra. Norgehiagoka oso gogorra zen baina borroka erdian Robin lurrera erori zen, piztia bere gainera salto egiteko prest zegoela, Robinek bira batekin hura saihestu eta ezpata hartuz piztia hil zuen ezpatakada zuzen batekin. Berehala Medearen gainean jarri eta tximista bezain arin alde egin zuten, zuhaitzen begirada zorrotzen artean, isiltasun osoa zen nagusi baina bazegoen soinu txiki bat, kantu antzeko soinu bat zen. Laino artean txabola bat agertu zen, bertatik





zetorren kantua, Robinek bertan sartzea erabaki zuen laguntza eskatzeko asmotan. Zalditik jaitsi zen eta atea ireki zuen, atea soinu beldurgarri bat egin zuen. Txabola ilunetan zegoen eta segituan txabola guztia argitu zen. Txabolaren alde batean emakume txiki eta zahar bat zegoen honek barre maltzur bat egin eta zera esan zion:

- Bazekiat zer nahi duan, baina horretarako hemen atzean dagoen atea zeharkatu behar duk eta kontuz ibili, ilunpetako erreinua oso arriskutsua duk eta gainera ez zaik denbora askorik geratzen, laster bazetorrek hurrengo ilargi betea.

Orduan Robinek ezpata atera eta segituan atea zeharkatu zuen. Beste dimentsio batean zegoen, ilunpetako erreinuan. Bere atzean presentzia bat sumatu zuen. Bira eman eta ilunpetako erregea ikusi zuen bere atzean eta honek zera esan zion:

-Zure erreinuko ispilua lortu nahi baduzu, ni garaitu beharko nauzu.

Hitz horiek esan ondoren dragoi bilakatu zen. Dragoiak sua bota zion baina Robinek saihestu egin zuen eta bat-batean bere ezpatak dizdira ikaragarri bat askatu zuen, majiaz kargaturik zegoen. Dragoiak ere berriro sua bota zion baina Robin ez zen mugitu, ezpata astindu zuen eta sugarra bi zatitan apurtzen duen izpi urdin disdiratsu bat ateratzen da ezpataetik eta dragoiari bihotza zeharkatzen dio izpiak. Dragoiak bere benetako itxura hartzen du, erregearena, baina hilda dago. Robinek ispilua hartzen du eta haize zirimola batek bera eta ispilua txabolaren sarrerara eramaten ditu eta bat-batean txabola ilunpetan desagertzen da, Robin bere zaldiaren gainean jarri eta Argoniarantza abiatzen da, gora begiratu zuen, ilargi betea zen, Robin heldu zen Argoniaren ateetara, izaki maltzurak erasotzeko prest zeuden baina orduantxe Robinek ispilua bi eskuetan hartu eta izakienganantz zuzentzen du, orduan izaki maltzur guztiak beldurtuta korrika batean atera ziren. Robinek ispiluaren gelara eraman zuen ispilua, erregea oso pozik jarri zen ispiluak berriro ere babesten du bere erreinua.

Azkenean denak pozik zeuden baina inork imajinatzen ez zuena gertatu zen Robinen zaldia pertsona bilakatzen da, Robinek txikitan galduta Aitona hain zuzen ere, eta honen bere benetako izaera erakusten dio, bera ez da mundu honetakoa baizik gizakiak eta dragoiak batera armonian bizitzen diren mundu magiko batekoa. Hori azaldu ondoren bere aitona bere jaioterrira eramaten du. Robin oso pozik dago azkenean badaki nor den eta baita nongoa den ere.



Egilea: Larraitz Rike Garaizar

Adina: 15 urte

Herria: Gamiz-Fika

BIZITZAKO ERABAKIAK

Gizakiok bizitzan zehar hainbat erabaki hartu behar izaten ditugu eta ez bakarrik guretzeko direnak baita ere kanpoko jendearengan erreakzio zuzena edo ez zuzen bat izaten dutenak. Normalean erabaki horiekin batera ondorio on edo txarrak etorri ohi dira. Egunero erabaki bat edo batzuk hartzen ditugu derrigorrez edo guk nahi dugulako.

Txiki-txikitatik hasi ohi gara hau egiten, gu ia konturatu ere egin gabe. Edo ez al duzue inoiz panpina bat baztertu beste bat politagoa delako, neskak bat lagun taldetik kanpo utzi edo baita ere talde barruan sartzen utzi...?

Baina erabaki zailenak gero etorri ohi dira urteak gora eta gora egin ahala. Zein bide hartu, zergatik, norengan izango duen efektua, nola egin gauzak... buruan izan ohi ditugun pentsamendu arruntak dira horiek. Une larrietan korapilatzea ekintza oker bat da erabakia txarto hartzea ekar dezakeelako.

Nik orain arte hartu ditudan erabaki eskasak izan dira baina oso fundamentalak nire bizitza sozial edo orokorrean zuzen-zuzenean afektatu dutelako; baina hartu ditudanak, esan beharrean nago, ez direla oso egokiak izan.

Nik beti esaten nuen erabaki bat hartzeko orduan ongi pentsatuko nituela eta horrelako gauzak baina erabaki garrantzitsu bat hartu beharrean ikusi nuenean neure burua, ez nintzen oso pentsakor jarri eta lehenbailehen hartu nuen. Hau ez da onena inondik inora ere baina kasu gutxi batzuetan (nirean ez) ongi ateratu ohi da dena.

Egia da baita ere bizitzan akatsak egin behar direla eta beraietatik ikasi ere eta nik eginiko akatsik handienaz ikasi dut: ez da dena utzi behar ezer ere ez balio duen pertsona (lagun edo bikotekide) batengandik.

Esan beharra dut ondorio honetara heldu ahal izateko ere denbora piloa eta zoriak



ekarri ohi dituen zenbait gertaera behar izan ditudala, besteak beste. Neronek une hartan ez bainuen aurrean nuena ikusten.

Baina zorte pixka bat ere eduki nuen nik, galdutako dena berreskuratu ahal izan dudalako. Orain egin behar dudana erraza dirudien arren oso zaila da gizakiok beti egiten ditugulako akats handi edo txikia, barka daitezkeenak edo ez... baina nik ez dut nire lagun bat patuaren aurrean biluzik utziko eta behar banaute hementxe nago beraiek behar dutenerako.

Gaia pixka bat aldatuz lagunekin harremana ez duten erabakiak ere baditu. Nesken kasuan mutilenengan baino gehiago eman ohi den bat arroparen kasua da. Ezinezkoa dirudien arren guk neskok erabaki garrantzitsu bat hartzen dugu ipiniko dugun arropa aukeratzeko orduan. Txarto joanez gero gainontzeko neska edo mutilen hizketa gai izango zara, zuk nahi edo ez. Hau ekintzak kritikatzeko piloa gustatzen zaigulako gertatzen da. Baina beti ere gu ez gaituztela kritikatu hori eginez gero ez baitzaigu gustatzen eta.

Oraingo hau bai dela berebizikoa. Gure ikasketen etorkizuna. Guk egin nahi duguna argi izan ohi dugu beti baina ez dugu kontuan hartzen unea heltzen denean, eman beharreko gaiak guk egin dezakeguna baino gehiago direla uste dugulako, ez dugulako laguntza nahikoa etxean ikasketa horiek burutzeko unean edo beste mila arrazoiren ondorioa izan daiteke. Baita ere gerta diezagukena ondorengoa da: ez izatea garbi etorkizunean izango garena.

Kasu horietan laguntza talde bat izaten dugu eskolan, baita ordenagailu programa ziztrin bat zeinek guk ditugun gaitasunak neurtu eta analizatzen dituen.

Nire ustez hoberena izango dituzun arloak ikuskatzea da eta ondoren zeure burua arlo horiek betetzeko gai den aztertu beharko zenuke. Erabaki zaila eta garrantzitsua da gure bizitza osoko egoera zehazten baitu.

Baina zailagoa oraindik izaki baten bizitzaren bukaera noiz datorren esateko ordua datorrenean.

Hau eutanasia kasuetan egon ohi da, batez ere, eta espero dut nik inoiz ez igaro behar izatea erabaki horretatik. Oso erraza baita kanpotik ikusita lagunduko zeniola edo ez zeniola esatea baina bertan zaudenean, bere aurrean, bera hil egiteko grinetan, ez dakit, ez dakit zein izango zen nire erreakzioa.

Egiten baduzu ona izango zara berarentzat baina kanpoko edo familiako partaideentzat agian zuk eginikoa barkaezina da.

Badaude baina erabaki txarragoak zeure bizia arriskua dagoenean. Zuk norbait hil edo berak zeu hil... hori dilema. Une horietan, zeure bizia eskuetan duzunean ezerk ere ez du inporta bakarrik zu eta bera.

Espero dut aurrerantzean erabaki bat hartzen duzuen bakoitzean egingo duzuen ondo aztertzea eta momentu larrietan era bai, horietan egiten baitira akats gehien.

V. Kategoria
(18 urtetik gora):

Egilea: Nerea Mallona Madariaga

Adina: 43 urte

Herria: Fruiz

LIBURUEN GAIKOTASUNA

LIBURUEN GAIKOTASUNA



Bada gaur egun, 5000 biztanle inguruko herritxo bat mendi batzuen artean dagoena.

Herrian denetarik daukate: polikiroldegia, frontoia, kultura etxea, musika eskola, liburutegia, zinea... e.a, asteburuetan eta, hainbat ekitaldi antolatzen dituzte gazte eta haurtxoentzat, eta jendea pozik bizi da.

Liburutegiko arduraduna Mila da, azken 25 urteetan han egiten du lan, liburu berriak erosi, sailkatu, apalak atondu... gustura dago bertan, liburuak maite-maite ditu eta irakurtzea ere, badaki liburu guztiak non dauden kokatuta, haur literatura, gazte literatura, itzulpenak...

Egun batean etxean ez zeukala ezer berririk irakurtzeko eta liburutegitik bat hartzea erabaki zuen.

Gauean afaldu ondoren salara joan zen liburua irakurtzen hasteko asmoz, baina hau ez ustekoa !!!!!!! Liburua akatsez beterik zegoen, hitz batzuk falta ziren, hutsuneak zituen, orri batzuk zuri-zuri zeuden...

Bere buruari galdezka hasi zen, baina zelan ez nintzen konturatu sailkatu nuenean? Harriturik zegoen gure Mila.

Hurrengo goizean, liburutegira heldu bezain laster utzi zuen liburua mahai gainean saltzaileari itzultzeko, eta bildumako beste liburu bat hartu zuen, baina... hark ere akats berbera zuen... antza bilduma osoa zegoen txarto!!!, gero haur literaturako apalera joan zen eta beste liburu bat hartu zuen... hura ere akatsez beterik... ez, ez, ez hau ez da nire errua izan !!!! hemen norbait lapurretan ibili da, eta liburuak lapurtu eta trukatu ditu...

Orduan zer egin ez zekiela, udaletxeko kultura arduradunari deitu zion eta gertatutakoa azaldu, heldu zenean, Mila negarrez aurkitu zuen liburu guztiak arakatzen, batzuk zuri-zuri zeuden, baina nor izan da????????? Eta nire aurrean egin du trukea gainera!!!!...



Kultura arduradunak zerbeit egin behar zela eta ikertzaile bat kontratatu zuen ea lapurretarik egon zen, eta gertatutakoa argitzeko.

Hurrengo astean etorri zen atzerritik liburutegian oso aditua zen ikertzaile bat, liburutegian bakarrik egon nahi zuela esan zuen dena ondo ikertzeko, ea gauza arraroren bat aurkitzen zuen.

Ikertzailea egun bi egon zen ikertzen eta bere lagun bati ere deitu zion, azkenean arazoa konponduta zegoela eta, liburutegi eta kulturako arduradunak bildu zituen bere ikerketaren emaitza azaltzeko.

Eta honela hasi zen:

Aspaldian zebilela halako istorioak entzuten, baina hona etorri arte ez zuela sinesten esan zien, eta bere ustez liburutegian ez zela lapurretarik egon, arazoa beste bat dela, liburutegia gaixorik dagoela.

- GAIXORIK??? Baina zer diozu? Zelan egongo da ba liburutegi bat gaixorik? Gaixorik gu gizakiok jartzen gara eta ez liburutegiak!!!!!!
- Ba bai, zuen liburutegia gaixorik dago, eta aspalditik gainera, lehen esan dizuet Europako hainbat liburutegi eta etxetan zabaldu dela gaixotasun hau, eta zergatik? Ba irakurlerik ez dagoelako; gero eta gutxiago irakurtzen dugu, eta apurka-apurka liburuak ahaztuta gelditzen dira apaletan, horren ondorioz hitzak indarra galtzen eta ezabatzen doaz, liburu osoa hitzik gabe gelditzen denean liburu hori hilda dagoela esan dezakegu.
- Eta zer egin behar dugu? Liburu guztiak erre eta berriak erosi?
- Ez, hori ez da irtenbidea. Badituzue bi aukera:
- 1- Atzerrian badago tresna berezi bat, bertan, liburu gaixoak sartzten dira eta 24 ordu egon ondoren berriro berreskuratzen dituzte hitzak, oso tresna garestia da eta sarritan ezin du gaixotasuna sendatu, gainera berriro gaixotzeko arriskua daukate.

-2- Beste aukera bat dago, merkeagoa baina herritarren laguntza behar duzue, eta benetako laguntza gainera.

Herritarrak behar dituzue liburua irakurtzeko, gutxienez 20 minutu egunero eta hila-bete osoan, lan hori egunero-egunero egin behar dute derrigorrean eta horrela, apurka-apurka, liburua sendatzen joango da eta hitzak berreskuratzen,... zer diozue???... Egingo dugu ahalegintxo hori?

- Ba, alkatearekin hitz egingo dut, baina ikusita zelan dagoen gure liburutegia ahalegintxo hori egin beharko genuke.

Igandean herriko alkateak bilera bat antolatu zuen liburutegian eta bertara hurbildu ziren herritarrei azaldu zien zein zen arazoa, eta zein eman duten irtenbidea.

- Batzuk barre egin zuten eta galdetu be bai ea alkatea adarra jotzen zebilen, baina ez, arazoa oso serioa zen eta zerrenda bat egin zuten laguntzeko prest zeudenen artean.

Horrela ba, herritar batzuk irakurtzen hasi ziren egunero, hasieran ezinezkoa zen ezer ulertzea, baina egunak aurrera joan ahala liburuan gutxika-gutxika hitzak berririo agertzen hasi ziren, eta bat baino gehiago liburua gogoz irakurtzen hasi ere; ipuin batzuk zoragarriak ziren eta.

- Ba bai!! Ikertzaileak arrazoi zuen, herriko liburutegia gaixorik zegoen eta inor ez zen konturatu liburua gero eta gutxiago erabiltzen zirelako.

Ordutik aurrera ondo baino hobeto zaintzen du gure Milak liburutegia eta hainbat ekintza antolatzen ditu jendea liburua irakurtzen animatzeko, eta goatzeko ipuin zoragarriekin.

Zeuek ere badakizue, gaixotasuna gero eta hedatuago dago, ahaztuta ditugulako gure liburu maiteak, umetxo txiki bat zaintzen dugun moduan zaindu behar ditugu liburua eta noizbehinka apaletatik eskuetan hartu, laztandu eta irakurri...

Beti dago tartetxo bat liburua irakurtzeko eta bide batez amets egiteko ere, bidaiaitzeko erarik merkeena da eta.

GOZATU LIBURUEKIN.



Egilea: Orzuri Rike Garaizar

Adina: 18 urte

Herria: Gamiz-Fika

INTXAUR-SAL TSA

Trenetik baxatu eta listo, banago ia etxean. Ai famili giroa sentitzeko grina, betiko lagunekin osteratxo bat ematera joateko abagunea edukitzea, neure sustraioletara berriro itzultzea... A zelako gogoia dudan amaren eleak aurrez aurre, bisaiara begira nagoelarik aditzeko, aitonaren txapeleko kolore beltzari begi liluratuez so egiteko, amonarekin era batera sukaldean aritzeko...

Beribileko gurpilek ez dutela bidea inoiz bukatuko dirudi. Orduak daramatzat aberritik egineko itzulera honetan eta jada akitua dut gorputza. Hala eta guztiz ere, nahiz eta enparauek ilargia labe gainean dudala esan, hemen bakoitzak darama berea barrutik. Hori gora-behera orain ez dago ezer egiterik eta autoa atari aurrean geratu bezain pronto, bertatik beheko suaren berotasunera salto egingo dut, bada sasoa eta!!

- Laztana etorri zara akabuen!!!
- Bai amomatxu, bai. A zelako gogoia nuen zu ikusteko. Ezin dezakezu ezta imajina ere egin!
- Bai, neuk ere banuen, bai. Zure falta sumatzen da, ez dago zaratarik eta!!!!
- Kar-kar! Zuk esateko ez da asko! Oraindik ere lehengo lepotik duzu burua, ai, ai.
- Bai, pitxin bai. Baina beno, ez hadi hor geratu hotza hartzen eta erdu barrura, hemen kanpoan baino aro hobea egingo du eta.
- Bai, bai, arrazoia daukazu. Gabonilen gaude eta dagoeneko jelak utzi du bere presentzia.

Usaina. Hiztegian edirenez gero, usaimenaren bidez hautatzeko gai garen eta gai-nontzeko gauzek guregan eragiten duten inpresioen adierazpena dela edota antzeko zerbait idoroko dugu. Bere esangura arautua hori izan arren, benaz soilik liburuxka beteko enegarren orrialdeko azken paragrafoan lau eleren bitartez izkiriatuta datorren esaldi batek ezin deskriba dezake bere osotasunean. Karriketako jende arruntari itaunduz gero, usainak bere bikotekidea, jakiren bat nahiz leku bereziren bat bururaraziko dio. Halako zerbait gertatzen zait niri ere azukre eta esne egosiaren kolonia goxoa sumatzen dudanean. Oraindik koskortua ez nengoeneko oroitzapenak dakarzkiz, nire ahaideen galtzarrean gizaldiz gizaldi gurasoengandik seme-alabengana igarotako kondaira



magikoen jakitun egiten nintzen bitartean loak hartzen ninduenekoak.

Horregatik, amonak ezkaratzerako gonbita egiten didan liparrean, ez dut duda-mudan jartzen mantala jantzi edota eranstea, atoan esku tartean daukadana hegi batera aurtiki eta mauka hutsean jartzen naiz, jakiek zikintzea ekiditeko.

- Kontaiezadazu laztana zelan zabilzan atzerriko ordeketan, mesedez.
- Oidanlez, ahal dena egiten. Baia nitaz aritu beharrean, hobe zuk zerbait badiostazu.
- Baina zer gura duzu nik, leiarretik zehar lau horma honetatik at zer pasatzen ikusteko gai ez den atso honek, esatea. Zu jada ur handitako arraina zara eta nire berba zaharrak ez dituzu laket izango.
- Halakorik okurritu egitea ere, amona. Zinez diotsut zure kalakak eguneroko bizitzan aditu behar ditudanak baino goxoagoak direla.
- Beno horrela bada ba, tira. Hala eta guztiz ere, nik gaur gauerako, ikazkina noiz jingo aiduru gaudenerako postrea prestatu behar dut. Ezpabere, zer afalduko dugu, bada?
- Ea ba, nik lagunduko dizut. Zer duzu nahiago, intxaurrak apurtzea edota esnea zaintzea?
- Mesede galanta egingo zenidake intxaurrak apurtuko bazenitu. Makina bat urtetan zehar nik neuk egin ahal izan dut; orain, ordea, indarrak joanda dauzkat eta ez dut balio ezta ogerleko bat ere. Horregatik, hobe nik esnea zaintzen badut.
- Ez ezazu pentsa horrelakorik. Esan egitea ere! Zu zaude zu, mari pertxenta.
- Ez, laztana egia hutsa da. Hamaikatxo udaberri bizi izan ditut orain arte eta denborak igaro ahala gure lerdentasuna ahitzen dioala onartu beharra dago. Edota, ez al duzu gogoratzen oraindik karrajuko armairua lain ez zineneko pinpilinpauxaren istorioa?
- Bai, gogoratzen dut. Oraindik ez daukat ahantzia. Aldiz, hagitz eskertuko nizuke berriro ere kontatu ahalko bazenidake.
- Nolatan ez, neure bihotza, nolatan ez. *Bazen behinola har gizen eta osasuntsu bat, egunak igaro ahala pinpilinpauxa ikusgarria bilakatu zena. Bere inguruko tximeletetan handiena, ederrena zen; hain zen egundokoa ezen bere bi hegai koloretsuak eguzkitan zabal-zabal eginda jartzerakoan, inguruko begiak lausotu egiten zirela, printzek hegoen kontra*



jotzerakoan itsutzerainoko distira egiten baitzuten. Ohikoa denez, enparauak jeloskor zeuden, orok gura baitzuten bere itxura xarmangarria izan, begirada guztien ardatz bihurtu.

Honek, ordea, ez zion gure tximeletatxoari burukominik ematen. Bera beti bizi zen alai eta zoriontsu, lorez lore, belardiz belardi loraileko garo artean estamineen artean dantzatzeko polena non edirengo. Zernahi gisaz ere, egun baten jada nekaturia zegoela beti bertako ordeketan zehar aritzeaz eta, mundua ikustera joan beharra zeukala erabaki zuen, giroz aldatzea ondo etorriko zitzaiola pentsatuz. Horregatik, bere edertasunari atarramentua atera gurean, zeru goietako nagusia zen arranoarengana abiatu zen, hark bidaian eramango zuela uste izanez.

- Pasaiezadazu, mesedez, horko erretilu hori, laztana, esnearen bitsa bertan jartzeko behar dut eta. Eskerrik asko, bihotza. Zelan doaz intxaurrak, prest egongo ahal dira laster? Bota diezaioket esnari azukre edota pixkatxo bat itxarongo dut?

Nondik nioan, a bai: orduan, ahalik eta ondoen atondu ostean, gure pinpilinpauxa, kantari eta saltoka arranoaren habiara abiatu zen. Halako baten, aldiz, estrata batetik zihoalarik, txepetxak egin zion oles. Gure tximeleta norantz zuzentzen zen jakin gura zuen, bera ere halako ekintzaren baten partaide izateko. Zer egitera zioan itaundu ostean, bera eskaini zen tximeletaren abentura hartan gidari izateko. Gure pinpilinpauzak, ordea, uko egin zion txepetxaren eskaintzari. Bera paraje hartako intsekturik goretsiena, desiratuena zen. Ezin zitekeen txikia eta bere endakoentzako kaskarra zen erdipurdiko txori batekin harremanetan aritu; are gutxiago halako notin batekin zeru lurretako done guztien laguntza eta indarra beharko duen abentura bat burutzera abiatu. Nahikoa zen berarekin autuan aritu izana ere.

Horrela dela, pinpilinpauzak ezetz esan zion txepetxaren atrebentziari eta berean jarraitu zuen, aurrera zuzen zuzenean. Bere aburuz, arranoa zitekeen bide laguniki aproposena: zeruko erregea eta lurreko animalia guztien artetik politena batera, ustai beraren pean bikote garaiezina eginez.

Badaude jada intxaurrak, ezta bihotza? Tira ba, birrin-birrin egin, esnetara bota eta 45 minutuz su geldoan eduki ondoren, prest egongo da gure gaueko monjorrerako.

Txepetxari destaina egin eta gero, bazioan gure pinpilinpauxa akitika. Halako baten, ordea, sekulako haize uñada batekin altxatzen du gure pertxenta airean, dinbilledanbalaka, zilipurdika, txerren baino suerte txarragoarekin, ezen inguruko zuhaitz bateko adarretan geratzen den itsatsita ezin bertatik irten. Bere aieneak eta ahaleginak ez ziren hala-moduzkoak izan, han zebilen goiak jo eta beheak jo bertatik jaitsi gurean. Bere hego zoragarriek ez zeukaten



indar eta potentzia nahikoa bertatik libre usteko. Bera, hotsandikoa izaki, ez zen gai bere kabuz estuasun hartatik irteteko.

Minutuak joan minutuak etorri, bidezidorretik ez zen inortxo ere igarotzen, ez zeukan nori laguntza eskatu. Gauzak horrela, halako baten txepetxa dager eta apaltasunez, jaregiten du pinpilinpauxa bere kartzelatik, fisik ere esan gabe, ezertxo ere egotzi edota aurpegiratu gabe.

Egun hartatik aurrera, tximeletak umant du hatsarrean mengela zeritzon txepetxa. Honek, bestalde, ez du egun hartan gertaturikoa argitara eman, gure pinpilinpauxak bere izen ona gordetzen dirauelarik.

Izan ere, bakoitza bere akatsen jakitun izan behar da, bihotza, laguntza eskaintzen digutenean gutxietsi beharrean onartzen jakinaz. Horregatik diotsut, saltsa hau prestatzen dakidan arren, nire hutsegiteak zeintzuk diren jakin behar dudala, ahal dela txepetxa legez jokatu. Urteen podasuz pausua laburtu zait, gerria gogortu, niniak lausotu eta indarrak ihes egin didate. Zure laguntza onuragarri suertatzen zait, zu ez zaudenean bakardadea pairatzen dudan lain.

Xarmantasuna: ingurukoak txunditzeko edota liluratzeko gaitasuna.

Xarmantasuna: nire amona, bere esku zimurtuez grazia galdu barik txikitako aldi-etara eramaten nauen pertsona, intxaur-saltsa prestatzen dugun artean makina bat jazarraldi pairatu eta gero, bere ipuinekin irudimena iziotzen didan laurogeita hainbat udagoieneko txoritxo, anpulu en gazitasuna gozotzeko gai den baretasuna. Nakarren konponbidea, loretan lore.

Duten suetea eskertzen jakin dutenen ohorez, egunen baten jakitun izango garen esperantzaz.

***Urteek heltzen naute,
nerabe bihurtzen
berriz haur izaten;
denborak darama.***

Egilea: Asier Legarreta Legarreta

Adina: 31 urte

Herria: Meñaka

IRELTSOA



Gu urtero joaten gara Zuberoara, bertako mendiak eta istorioak maite ditugulako. Behin Larraineko artzain zahar batek hala zidan kontatu:

Zuberoan gau guztiak ederrak badira ere, gau hura ederragoa zen, ezin ederragoa. Izarrez beteta zegoen zerua eta Joanes artzaina bere etxaldetik atera zen, gau eder hartaz gozatzeko asmoz. Etxean emaztea eta hiru seme-alaba zeuden, laurak lo zerraldo. Ilargia zeru goian zen, bete-betea, zuri-zuria, gaueko erregina zirudien. Ezker-eskuin, zeruko bazter guztiak betez, era eta neurri guztietako izar dirdiratsiak zeuden oskian.

Tarteka, izar ibiltari batek zerua, aldez alde, zeharkatzen zuen, urruntasunean zeru ertza hornituz, Zuberoako, Biarnoko eta Nafarroako mendiak: Arlas, Auñamendi, Orhi, Betzula, Erromendi, Hiru Erregeen Mahaia, Txamantxoia, Lakora... hura zen edertasuna!

Joanes gizon langilea zen eta eguneko lanak amaituta zeuzkan. Alabaina, oheratu aurretik, eta gaueroko ohitura jarraituz, kanpo aldera atera zen gau hartako izarratuaz gozatzera.

Horretan, kurrinka batek bere arreta bereganatu zuen. Kurrin-kurrin... soinua hurbi-letik zetorkion. Kurrinka entzun zuen tokirantz begiratu eta bertan argitasun berezi batez inguratutako txerrikumea ikusi zuen. Aiko, bere txerrietako bat ote? Baina argitasun hura? Oso bitxia zen.

Txerrikumeak kurrinka jarraitzen zuela ohartu bezain laster, Joanez berarengana abiatu zen harrapatu nahian.

- Etor hadi txerrikume, etor hadi hona! -esan zion, berehala harrapatuko zuelakoan.

Baina Joanesen deia entzun orduko, txerrikumeak burua biratu eta sasi artera sartu zen. Joanez ere bai, sasi artera sartu zen eta handik zenbait metrotara txerrikumea ikusi zuen, beti argitasun berezi hartaz inguratuturik.

- Hago hortxe geldi, alu alena! Hago geldi-geldi -esan zion.

Baina alferrik, Joanesen eskura zegoela ematen zuen momentu berean, jauzi batez, gaueko isiltasunean barneratu baitzen. Inguruan zera-man argitasunak nondik nora zihoan salatzen zuen. Joanesek ordurako bazituen bere neke guztiak ahaztuta, eta bere gogoan txerrikume burlati hura harrapatzeko nahia areagotuz joan zitzaion.

- Harrapatuko haut txerrikume madarikatua, nahiz eta horretarako gau osoa eman behar badut ere!

Esan eta egin. Joanes txerrikumearen atzetik zebilen, sasiak zanpatuz, erreka zeharkatuz, aldapak igoz... beti argitasunak salaturiko txerrikumearen urratsei jarraiki. Denbora luze zera-man txerrikumearen atzetik. Sarritan eskura zeukala iruditu arren, azken momentuan, eta ustekabean, txerrikumeak beti alde egiten zion. Joanes amorratuta zegoen, amorratuta baino gehiago, txerrikume iheskoraren harrapatze saio hartan guztiz tematuta.

- Hago geldirik pittin batean, eta harrapatuko haut! -esaten zion behin eta berriz.

Baina eskuratzeko eran zegoela uste zuenean, txerrikumeak, modu batera edo bestera, hanka egiten zion. Denbora luze samarra zera-man txerrikumearen atzetik. Aldapak gero eta zorrotzagoak ziren eta mendiak gero eta garaiagoak. Hala eta guztiz ere, Joanes itsu-mutsuka zihoan argitasun bitxiaz inguratutako txerrikumearen atzetik.

Tarteka, etsitzeko gogoeta pizten zitzaionean, txerrikumea kurrinka hasten zitzaion, kurrin-kurrin! Eta artzainarengana hurbiltzen zen. Halakoetan, Joanesek, tentaturik, eskua luzatu eta... zapa!!!, txerrikumea, jauzi batez, urrundu egiten zitzaion, berrito ere.

Bat-batean, txerrikumea nonbait ostendu zen. Argitasuna desagertua zen. Joanes iluntasunean barneratu zen. Argizagiak eta izarrek emandako argiak zeru gaina argitzen zuen, baina lurreko apalean, baso eta harkaitzen artean, Joanesek ez zuen gauza handirik ikusten. Bidea galdua zuen aspaldi eta ez zekien garbi non zegoen.



Etxe aldera itzultzeko bideaz pentsatzen ari zela, txerrikumearen kurrinka entzun zuen berriz. Kurrin-kurrin! Ikusi ez zuen ikusten, baina entzun bai. Berarengandik bi metro-tara zegoela iruditu zitzaion. Hura zen bere aukera –pentsatu zuen- lasterka zenbait pauso egin, besoa luzatu eta txerrikumea eskura edukiko zuen. Benetako aukera iruditu zitzaion.



Pentsatu eta egin. Arineketari emanez, aurrera jo zuen, eta besoa luzatzeko pentsamenduetan zegoela, amildegi sakon batera erori zen. Amiltzen ari zela, barre ozena entzun zuen.

Kar, kar, kar, kar, kar, kar !!! Gora begiratu eta argitasunez inguratutako txerrikumea ikusi zuen. Barreari eman zion. Kar, kar, kar, kar, kar, kar !!! Orduan ulertu zuen dena.

Txerrikumea ez zen txerrikumea, aiton-amonen ipuinetan, hainbestetan entzundako irelto jolasti eta gaizkin horietakoa baizik. Gizon-emakumeak engainatzea, baso eta mendietan galtzea eta arroiletan amiltzea maite omen zuten irelto gaizto horietako bat.

Ireltsoaren argitasunaz hango parajea ezagutu zuen. Bere etxe ondoko mendian zegoen arroilan amiltzen ari zen. Bitartean, oihartzunak ireltsorearen barre ozenak bellarrietara zekarzkie. Kar, kar, kar, kar, kar, kar !!! Joanesek argi eta garbi zekien salbaziorik ez zuela. Han arroilan behera. Joanesek bere azken hatsa emana zuen. Ireltsoaren barre ankerrek gauaren isiltasuna bete zuten. Kar, kar, kar, kar, kar !!!



**FRUIZKO
UDALA**



**GAMIZ-FIKAKO
UDALA**



**MEÑAKAKO
UDALA**



**ARRIETAKO
UDALA**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTZA